

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 160. alea - 2012ko otsaila

“Saiatu programa ezagutarazi nahi dugu”



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.


ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

TAILAGILEA

Zuriñe Gredilla Kareaga

Kalbeton Zumardia, 5
Tel.: 666 720 313
txirbila@gmail.com
20820 DEBA (Gipuzkoa)



ARKATZA
Liburudenda


Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 behe . 20820 DEBA
943 029 186

AZKUNE
FRUTA PRODUKZIOA ETA ZERBITZUA
1975etik zuekin!



**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA



MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



kutxa
ZUGANDIK ZUGANA



JANTZIDENDA
LERSUNDI KALEA, 37
20820 DEBA



50 URTE
BURU - ZURI
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA

Kafetegia



Foruen Plaza
Tel.: 943 191 035
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Calbeton



JATETXEA

Agustín Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:
Zuhatza Euskara Elkartea
Erredakzio taldea:
Goizane Aizpurua,
Mikel Aizpurua,
Koldo Aperribai,
Izaro Aulestiarte,
Nagore Dorronsoro,
Lukax Dorronsoro,
Xabier Laka,
Migel M.Lekube (Lutxo)
Ina Oiartzabal eta
Eider Zulaika

Azaleko irudia:
Erredakzio taldea
Publizitatea:
Joseba Escudero eta
Juan Mari Gurrutxaga
Tlfnoa.: 943 19 13 83
943 19 26 94

Logotipoaren diseinua:
Iñaki Elosua
Banaketa arduraduna:
Juanma Oiartzabal
Inprimategia:
Euskalinpri
Tirada:
1.400 ale
Lege gordailua:
SS-246-2009
ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

ARGITARATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia



10

Ander Salegi



15

Ander Salegi



17

Ander Salegi

KOLABORAZIOA.

Ibon Urkia,
"Txillardegi". 05.

INTZIA. "Gure esku!". 06.

ELKARRIZKETA.

Josune Artetxe eta Olatz Romero, Saiatu proiektuko kideak.

07.

ALBISTEA .

Literatur lanak aitita-
amamentzat. 10.

**BERRIKETAN
GAZTEA.**

Hezkuntza afektibo
sexuala, inauteriak...

11-14.

ALBISTEAK.

Udal
aurrekontuak, Prai-
leaitz, Santa Ageda...

15-16-17.

ZERBITZUAK. 18.

EGIN ZAITEZ BAZKIDE ZUHATZAN



260 bazkide gara dagoeneko Zuhatzan; eskerrik asko denei.



943 19 13 83

40.000 € inguruko aurrekontua du Zuhatzak 2012. urterako.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Eskerrik asko!

Urtero bezala, aurten ere Saharara bidaltzeko janari bilketa egin dugu udaletxe azpian eta, herrian izandako erantzunari esker, produktutan 980 kg erosi ditugu jasotako 810 euroekin. Bestalde, beste 1.070 kilogramo ere bildu ditugunez, guztira 2.050 kg izango dira gure herritik saharar herrira bideratuko direnak.

Gainera, salbuespen bezala, oraingoan arropa ere bidali dugula azaldu nahi dizuegu.

Lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi dizkizuegu guzti-guztiori, zuek gabe gu ez garelako ezer!

Debako Saharautz Elkartea



ARGAZKI ZAHARRA

1920. urteko inauteriak, Deban



Iturria: Egun Zaharretako Deba liburua.

1920ko inauterietan, hainbat karroza egin ziren Deban. Horietako bat "Chisporroteo 1920" zeritzana izan zen. Ezkerretik eskuinera, debar hauek agertzen dira bertan: Jose Amuategi, Estanislao Maiztegi "Piston" (perfilez), Ramon Egaña, Andres Esnaola (atzealdean), Jose Manuel Esnaola, Jose Urain, Maria Esnaola (Popis), Pepe Izaga, Juan Urkiri eta Millan Egaña.

Miguel Angel Landak emana.

Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



IBON URKIA

TXILLARDEGI

Amasa inguruan ez dira, azkenaldian, Chopinen piano doinuak entzuten, ezin izan du bere 82. negua burutu. Igaro berri den urtarrilean utzi gaitu Txillardegik. Hamaika ertze-ko harribitxia, asko zor diogu.

Alfabetatuak garen, eta bidenabar etorkizun diren, euskaldunok ez dakit zenbateraino jabetzen garen hizkuntzalari gisa egin zuen lan esker-garen garrantziaz. Koldo Mitxelena eta berau har genitzake gure hizkuntza batuaren aitzindaritzat.

Frankismoaren garai latzeneretan euskara museo etnolinguistikoko ponpoxo batera baztertu nahi zutenei aurre eginez, oso argi izan zuen inguruko nahiz mundu zabaleko beste edozein hizkuntza bezainbeste izan zitekeela bizimodu modernorako. Baita lanari ekin ere, egoskorra izaki!

Bere izenaz oroitzen ez naizen norbaiti

irakurria diot egunotan gure Noam Chomsky genuela Txillardegi. Hizkuntzalari eta eragile politiko amerikarraren ekarria ez dut neronek zalantza auzitan jarriko. Jose Luisek, ordea, bikoitza zuen erronka, euskara eta euskararen herria. Izan ere, aspalditik sinetsia zuen bere buruaren jabe ez zen herriaren baitan jai zuela hizkuntzak, espagnol eta frantsesen eskuetik galbidera gindoazela, alegia. Euskal Herria helburu, euskalduna eta bere buruaren jabe.

Deban ospatu zuten bilera klandestino batean bota omen zuen ETA erakundearen izena izango zena. Espetxea eta erbestea jasanagatik, laino guztien azpitik eta sasi guztien gainetik, burua tinko, aurrera.

Baditugu hamaika zio zure lekukoa hartzeko, Orreagako euskaldunen irrintziak bizi-rik eta ozen dirau, Txillardegi. Agur eta ohore.



GURE ESKU!

2012. urterako udal aurrekontuak onartuak izan dira pasa den urtarrilaren 27an. Alderdien artean egindako elkarrizketek fruitua eman dute eta horrek ahalbidetu du aurrekontuak ia aho batez onartu izana. Abstentzio bakarrarekin eta gainontzeko aldeko botoekin onartuak izan dira udal gobernu taldeak proposatutako aurrekontuak.

Denok dakigu aurten, eta datozen urteetan, udalaren baliabide ekonomikoak ez direla aurreko urte batzuetan bezalakoak izango. Udal batentzat oinarrizkoak diren diru-sarrerak murriztu dira (besteak beste, enpresek ordaindu beharreko zergek, eraikuntzatik eratorritako zergek edota Foru Aldundiak emandako diru-kopuruak eraginda) eta gehiago ere murriz daitezke datozen urteetan.

Herritar guztiok izan dugu udalaren gaur egungo egoera ekonomikoa zein den ezagutzeko parada. Arlo desberdinetan banatutako aurkezpen bileretan, diru-sarrerak eta irteerak, ordaindu beharreko maileguak eta udaletxearen diru kutxa nola dagoen aurkeztu zaigu herritarroi.

Ezagupena da, egoeraz jabetzea, denonak diren baliabideak erarik egokienean kudeatzeko lehen pausoa. Hori izan da helburua eta herritar zein elkarte desberdinek beren proposamen, iritzi eta kritikak jakinaraziz parte hartu dute prozesu horretan. Udalaren kudeaketan herritarrok izan behar dugun parte-hartze maila aldatzeko bidean urrats txiki bat eman dugu, lehenengoa, ezagupena. Pauso sendoagoak eman beharko ditugu, eta ematera goaz, datozkigun garaiek eta erronkek hala eskatzen baitute.

Mundura salto eginez, krisi sistemiko baten aurrean gaude; ongizate sistema, elikadura, ingurumena, bizi-baldintzak eta giza eskubideen urraketa eta xahutzea etengabe ematen da herrialde desberdinetan. European eta Euskal Herrian, eztanda egin du

“Eraldaketa soziala helburu, alternatiba eraikitzen jarraitzea da erantzunik sendoena, eredu berri baterantz pausoak emanez”



ekonomia espekulatiboaren inguruan sortutako burbuilak eta jada hiru urte luze pasa dira egoera berriari buelta eman ezinik. Eta nola ez, hau guztia natura-baliabideen mugak kontuan izan gabe garatu da.

Hori horrela izanik ere, sistemaren porrota onartu beharrean, neoliberalismoa eta finantza boterea berrindartzeko ildo oso bat dago irekita –sektore publikoaren papera murrizteko eta pribatizazio prozesuetan sakontzeko, merkatuak eta bereziki finantza merkatuak babesteko, ongizate sistema deuseztatzeko eta demokraziarekin lotsarik gabe amaitzeko-. Euskal Herriaren kasuan, horri guztiari burujabetza politiko eta ekonomikoaren ukazioa gehitu behar zaio. Krisiaren aitzakia erabilia, estatuaren baitan zentralizazio prozesu bati ekiteko asmoa oso nabarmena da. Hau da, agerikoa da menpekotasun politiko eta ekonomikoa areagotzeko saiakera eta erabakia.

Horrek guztiak erantzun sendo bat eskatzen du. Herri honetako eragile sozial, sindikal eta politikoei, bakoitzak bere esparruan eta denok batera, martxan dagoen erreforma neoliberalari eta zentralizazio prozesuari aurre egin beharko geniokeela uste dugu.

Eraldaketa soziala helburu, alternatiba eraikitzen jarraitzea da erantzunik sendoena, eredu berri baterantz pausoak emanez. Herrian, ditugun baliabideak modu justuenean erabili eta banatzea dagokigu: egoera sozial zailenetan daudenak babestea, herriaren garapenerako proiektuak bultzatzea, euskara eta herri-kultura sendotzea, ingurumena modu ardurasuan erabili eta egunerokoan eragiten diogun kaltea murriztea... **Denon iniziatiba eta ideiekin herri alternatiba berri bat eraiki behar dugu, eraldaketa soziala herrietatik abiatu behar baita.**

Debako Ezker Abertzalea

“Gaixoaren eta bera zaintzen duen familiaren erritmora joan nahi dugu; laguntzeko prest gaude”



Bizitzaren azken fasean dauden gaixoen eta haien familien bidelagun izan nahi dute Saiatu proiektuko kideek. Zaintza paliatiboak eskaintzen dituzte, betiere pazienteen eta haien zaintzaileen ongizatea bilatuz, eta kasu bakoitzaren errealitate eta erritmora moldatzen dute euren jarduna. Dagoeneko urtebete inguru daramate Gipuzkoa osoan alde batetik bestera, borondate eta ilusio handiarekin; baina, oraindik ere badago, “tamalez”, doako zerbitzu hau ezagutzen ez duenik. Hori dela eta, proiektuaren nondik norakoak azaltzera etorri zaizkigu herrian gehienok ezagun dugun Josune Artetxe erizain-laguntzailea eta Olatz Romero sendagile donostiarra, biak ala biak Saiatuko lantaldeko kideak.

Saiaturen zerbitzua guztiz doakoa da eta hiru bat hilabeteko bizitza-epaia duten gaixo sendaezinei, eta egun horiek etxean bizi nahi dituztenei, zuzenduta dago. Gehienbat minbizia duten pazienteekin eta haien zaintzaileekin egiten dute lan; baina kasu bakoitzean eskaintzen duten zerbitzua ezberdina dela kontatu digute Josunek eta Olatzek, “persona eta etxe bakoitzeko beharrak ere ezberdinak izaten direlako”.

Azken batean, gaixoaren bidelagun izan nahi dute, amaiera fasean dauden pertsonak ezin direlako sendatu, baina bai zaindu; laguntza eman, eurei entzun eta ondoan egon, presarik gabeko bisitak egin, pazienteen independentzia sustatu eta, ahal den neurrian, baita bizi-kalitatea hobetu ere. Hori guztia eta gehiago hartzen dute beren baitan zaintza paliatiboek, eta horretan dabil sei emakumez osatutako lantaldea. Proiektuan bi erizain, bi erizain-laguntzaile, mediku bat eta gizarte langile bat ari dira lanean, eta bolondres moduan dabilen beste sendagile baten laguntza ere badute. Orain urtebete inguru hasi ziren zerbitzu hori Gipuzkoan eskaintzen; -aldez aurretik, hori bai, formakuntza teorikoa zein praktikoa jaso zuten guztiek-.

“Heriotza, oraindik ere, etsai

handiena balitz bezala dago ikusita -esan du Olatzek-. Orduan, halako diagnostiko bat dutenean, heriotza bakarrik ikusten dute; ez dute ikusten bitartean gelditzen den denbora eta hori dena. Eta gu denok beste dinamika batean egoten saiatzen gara. Heriotza hor dago, hori egia da, baina bitartean badauzkagu gauzak egiteko, denbora bat daukagu, eta zer egin dezakegu? Bada, sintomak eta abar ondo kontrolatuta egoten saiatzen gara, nolabait bizitzeko indar gehiago izateko, baina ez soilik indar fisikoa... gu emozio alde hori zaintzen ere saiatzen gara”.

Alegia, pazientearen eta bere familiaren ongizate psikologiko edo emozionalaz ere arduratzen dira Saiatuko kideak. Familia batek deitzen dienean, eurekin elkartu, egoeraren balorazioa egin, eta familiek esaten diete zer premia dituzten. “Eta gu horretara moldatzen gara -dio Josunek-. Gauza ezberdinak egiten dira etxe bakoitzean: batzuetan beraiekin irten gara pasiatzera, bestetan eguneroko gorputz garbiketara laguntzen dugu, gaixoari galdetzen diogu zer nahi duen egin (zer iritzi duen, kafe bat hartu nahi duen, edo kalera irten...). Askotan la-guntza emozionala eskaintzen dugu, haiekin hitz egin, konpainia egin, kartetan jokatu...

Gaixo horiek ere bizirik daude, eta une gogor horiek haiekin batera pasa nahi ditugu; ahal dena egiten saiatzen gara, hor egoten, berak markatutako erritmora joaten... beti, hori bai, euren baimenarekin eta errespetu handiarekin”.

Konfiantzazko harremana

Saiatuk eskaintzen duen zerbitzua Osakidetzan eskaintzen denaren osagarria dela argitu digute, “kate moduko bat da, baina oso ezberdina da”. Besteak beste, proiektu honek indar berezia jartzen du pertsonen ongizate psikologikoan, “eta pazienteekin zein haien familiekin konfiantzazko harremanak lortzen ahalegintzen gara”.

Orain arteko ibilbidearekin pozik daude Olatz eta Josune, behin konfiantza hartuta “guk pila bat disfrutatzen dugulako haiekin, eta haiek ere gurekin. Baina gure berri ez duen jende asko dago oraindik. Leku batzuetara ez dira iristen baliabideak, eta askotan pentsatu dugu zenbat jende egongo ote den gure beharrea... pena handia da hori. Gu laguntzeko prest gaude, eta hori zabaldu nahi dugu”.

Harremanetarako edo informazio gehiagorako, 666685038 telefonora deitu.

Sukaldaritza naturala eta energetikoa



Gabonetako oporraldiaren eta jan gehiegi-keriaren ondoren, Itxasbegi elkartean antolatutako sukaldaritza natural eta energetikoari buruzko ikastaroa egin genuen Jesús Romero, jaki hezitzaile eta Arrasateko ECONAT eskolako sortzailearen eskutik.

Lehenengo klasean teoria ikusi eta aztertu genuen. Handik hainbat ondorio eta aholku atera genituen, sukaldaritza mota honen funtsaz jabetzeko eta praktikara eramateko:

1.-Urtaroen zikloak jarraitu behar dira. Garaian garaiko elikagaiak kontsumitu eta bertakoak eta ekologikoak badira hobeto.

2.-Elikagaien arteko oreka ("equilibrio nutricional") mantendu eta oreka hori dinamikoa izan dadila zaindu. Oreka horretan dena da ona, baina neurrian. Jakinda gorputz bakoitza bakarra dela munduan, bakoitzak bere oreka partikularra bilatu behar du. Oreka hori topatzea ez da, batzuetan, erraza; orduan, laguntza

eskatu. Hala ere, oro har, hauek dira gure gorputzak eskatzen dizkigun konponenteak eta bakoitzak dituen funtzioak:

a) Karbohidratoak: energia sortzeko glukosa ematen digute. Nerbio sistema elikatzen dute.

b) Proteinak: animalienak edo begetalak. Gorputzaren adreiluak dira.

c) Mineralak: giharrak, hezurak, hortzak, nerbio sistema eta odola erregulatzen dituzte.

d) Grasak: tenperatura, flexibilitatea eta odola erregulatzen dituzte.

e) Bitaminak eta fibrak: beharrezkoak dira metabolismo prozesurako. Berdurak eta frutak.

f) Fermentoak: flora intestinala erregeneratzeko eta nutrienteak ondo asimilatzen.

g) Entzimak: onak digeritzeko eta nutrienteak asimilatzen.

Elikagai guztiak behar dira eta haien kalitate eta kantitatean oinarrituko da gure gorputza energia sortzeko.

Energia horrek izaten, egiten eta modu batera sentitzen lagunduko digu. Horregatik, Jesus ez da, batere, dieta erradikal edo milagrosoen aldeko, kontuzkoak direlako; hala ere, eginez gero, espezialista baten laguntzarekin egiteko aholkatzen du.

3.-Kontuan eduki behar dugu, era berean, kanpoko klima edo eguraldia.

4.-Barruko klima ere oso garrantzitsua da elikagaiak aukeratzeko. Arreta jarri behar diegu gure emozioei eta barruko energia sentitu; ekilibrioa lortzeko zer behar dugun eta zer ez ikasi behar dugu.

Horixe da, lau hitzetan, ikastaroan ikasitakoa baina mamia eta benetako giroa sukaldean eduki genituen. Hamabost bat plater prestatu genituen Itxasbegiko sukaldean. Ez ditugu produktu ohikoenak erabili, baina horiei buruz beste batean hitz egingo dizuet.

Jan eta edan indarberritzeko eta barre egin zioriontsu izateko.

Juanma Oiartzabal

LUZARO ESKOLAKO PILOTA TXAPELKETA: Txapeldun berriak benjamin mailan

Urrian hasi eta egunez egun, jolas orduetan, jokatu da 2011-2012 ikasturteko benjamin mailako Luzaroko Pilota Txapelketa. Hirugarren eta laugarren mailako ikasleei egokitutako pilota partidak Agirretzeko eraikinak daukan frontoi dotorean jokatu dituzte.

Bi multzotan aritu dira nor baino nor, alde batetik neska elkarren kontra eta bestetik mutilak, 23 neska eta 42 mutil pilotari. Hirugarren eta laugarren mailako ikasleak izanik, partidak 10 tantotara jokatu dira finalerdiak arte, horiek 12 tantotara izan baitira. Aurretik, partida galtzen zuena kanporatuta geldit

tzen zen.

Pilota partidak oso borrokatuak eta, tarteka, oso onak izan dira, baina urduritasunak ere izaten du halakoetan zer esana. Hala ere, txapeldunek merezimendu osoz lortu dute euren garaipena.

Aurtengo txapeldunak hauek izan ditugu:

***Neskak:** Malen Arakistain, Ane Txurruka, Aloña Salegi eta Maider Gorosabel. ***Mutilak:** Urko Azkoitia, Josu Salegi, Jon Gandiaga eta Galder Gorroño.

Luzaro L.H.I. (Kirol arduradunak)



2011, URTE OPAROA EUSKARARENENTZAT... DENON BOROZDAREN ESKER LOFTUTAKO!!



Mintzalaguna:

Urtea bukatzerako, lau talde eta 15 lagun euskararen erabilera sendotzen



Korrika 17:

Debarrok erakustaldi ederra antolakuntza lanetan, eta herriaren parte-hartzeaz... zer esanik ez!



Udara kulturaz blai:

Haurrak beti haur! Aisialdiaz euskaraz gozaten, irriak eta pozak aurpegietan



Euskal Jaia:

Markak hautsiz, Aldats pilotalekua txiki geratu zitzaigun; 550 lagun euskal kulturari arnas ematen



Olentzero eta Mari Domingi:

Ohitura zaharrak bultzatzen, harrera beroa urtez urte gabon kantak abestuz



Bertsolaritza:

Bertsoaletasuna landuz eta gozatzuz, Zubeltzu bertso paper sariketa eta Gpuntu finalera bi autobus Debatik

Ekimen horiek bultzatzeaz gain, Zuhatza Euskara Elkarteak bestelako makina bat lanetan ere jarduten du: literatur eta postal lehiaketak, kultur jarduerak, Euskararen Eguna, *Berriketan* herri aldizkaria...

Baina, zer egin nahi dugu etorkizunean?

Euskara eta euskal kulturaren aldeko dinamizari jarraipena eman ahal izateko, zer hobe zu zeu ere mugimendu honetako parte izatea baino? Hurbil zaitez Zuhatzara, gurekin batera hau guztia egitera!!! Ateak zabal-zabalik dituzu!



Kontakturako: 943 19 13 83 telefonoa edo
koordinatzailea@zuhatza.com helbide elektronikoa.

Ifar kale 12, behea.

Bulegoko ordutegi finkoa: astelehen eta astearteak, 18:30-20:30

Literatur lanak aitita-amamentzat

Hogeita hamar lan aurkeztu zituzten Arbil Elkarteak antolatutako lehiaketara

2011 bukaera aldera, Debako DBHko lehenengo mailako ikasleen artean lehiaketa bat antolatu genuen Arbil Jubilatuta Elkartearen. Guztira 30 neska-mutilek parte hartu zuten, eta Lukax Dorronsorok

lagundu gintuen, beste behin ere, haien lanak irakurri eta testurik txukunenen aldeko erabakia hartzen.

Malen Egaña gaztearentzat izan zen lehiaketako lehenengo saria, "Beti

nire bihotzean" izenburuko lanarengatik (testua hemen azpian duzue irakurgai). Epaimahaiaren esanetan, gaztearen lana "oso txukun eta neurri onean idatzitako ipuina da, gertakari kontatuen arteko oreka une oro mantenduz. Esan beharrak era ederrean esateko gaitasuna nabari zaio idazle gazte bezain argi honi".

Bigarren saria **Naiara Mantzidorren** "Amonaren istorioak" lanak lortu zuen; "ipuina kontalari batek, plazaz plaza jendeari kontatzeko, idatzi duen gidoia dirudi", nabarmendu zuen epaimahaiak. Eta hirugarren saritua ere neska bat izan zen, **Ane Redondo**, "Errealaren partida" izenburuko istorio "alai eta bizia"-ri esker.

Eskerrik asko guzti-guztiei!!

Arbil Jubilatuta Elkartearen



Ander Salegi

Beti nire bihotzean

Ni Bilbon bizi naizen 20 urteko Sara naiz, idazlea eta ipuin kontalaria, ameslaria eta imajinazio handikoa, baina hori dena nire amamari zor diot. Berak erakutsi zizkidan bizitzako gauza garrantzitsuenak, berak erakutsi zidan noraino iritsi zaitezkeen imajinazioarekin.

Nire istorio hau orain dela urte batzuk hasi zen, gutxi gorabehera 10 urte nituela...

Inpazientziaz itxaroten nuen beti ostirala, ez zen, ez eskola amaitzen zelako, ezta asteburua hasten zelako ere, amamaren etxera joan behar nintzelako baizik. Nire amama ipuin kontalari paregabea zen eta asko zekien naturari buruz, gainera 80 urte izateko oso bizia eta alaia zen.

Egun hartan, eskolatik irten eta dida batean amamaren etxera joan nintzen:

-Din Don!- jo nuen tinbrea.

-Aurrera, Sara -esaten zuen beti-, badakit zu zarela.

-Baina amama, nola jakiten duzu beti nork jotzen duen tinbrea? Lehengoan ere, tinbrea jo zutenean, alboko andrea zela asmatu zenuen!

Berak irribarre gozo batekin erantzuten zidan, horrelakoa baitzen, misteriotsua eta irekia aldi berean.

-Zer egingo dugu gaur?

-Ba begira, pentsatuta nuen gaur mendira joatea, mendia baita natura aztertze-ko lekurik onena.

-Bai horixe, amama! Baina, ez al

dugu ogitartekorik eraman behar?

Orduan, sukaldara begiratu nuen nire ezkerreko begiarekin, eta han ikusi nituen bi ogitarteko, gailera batzuekin batera. "Nire amama hau beti ni baino pauso bat aurrerago doa", pentsatu nuen nik. Bada, abiatu ginen mendira, han txoriak, loreak, hosto askoko zuhaitzak... ikusi genituen, udaberria baitzen.

Pixka bat ibili ondoren, amamak gelditu egin ninduen:

-Sara, gelditu unetxo batez, isildu eta entzun.

Kasu egin nion eta kuku bat entzun nuen.

-Kuku, kuku-, entzuten zen basoan.

-Txori hori Kukua da. Bera da txori guztietatik alferrena, bere arrautzak beste txori baten habian uzten ditu, txori horren arrautzak lurrera botaz. Entzun nahi al duzu kukuari buruzko ipuin bat?

Nik baietz erantzun eta berari entzuten geratu nintzen. "Behin batean bazen..." oso gogoko nuen horrela hasten zenean, baita bere kontatzeko modua ere, begiak itxi eta beste mundu batean murgiltzen nintzen sentipena nuen, amamaren hitz eta esaldiez babestuta. Hori zen eguneko momenturik onena.

Nire amamak naturaz gain sukaldaritzaz, medikuntzaz eta landaretzaz asko zekien. Berak erakutsi zidan sukaldatzen, landareak zaintzen eta pozoitsuak bereizten, lehenengo arriskuak eta animaliei buruzko gauzak, baina, batez ere, ipuinak eta istorioak kontatzen eta entzuten. Oso, oso, oso maite

nuen amama. Baina gauzak ez dira betirako izaten eta lehen alaitasunez eta bizitasunez osatutako sugar hori poliki-poliki itzaltzen joan zen, kontsumitzen ari garen kandela bat bezala.

Iritsi zen bada edonoren bizitzan iristen den unea, inori gustatzen ez zaion, baina hori gabe bizi ezingo ginatkeen unea, hiltzeko unea.

Amama ohean ikusi nuen etzanda. Kosta egiten zitzaion arnasa hartzea eta oso zurbil zegoen:

-Sara-, esan zuen oso baxu.

-Zer nahi duzu amona?-, galdetu nion eskutik helduta.

-Ez dut uste honetatik aterako naizenik, baina, betiko joan aurretik zerbait esan nahi dizut.

-Ez esan hori! Onik irtengo zara!

Momentu horretan malko bat atera zitzaidan, penaz beteriko malko bat.

-Ez, Sara, ez. Bizitzaren zikloa horrelakoa da, kontsumitzen joaten den kandela bat bezalakoa. Nik zuri nekien dena erakutsi nizun eta, badakit, etorkizun batean emakume zintzo eta langile bat izango zarela. Beti izango naiz zurekin. Agur.

Hori esan eta betiko itxi zituen begiak, baina, bere aurpegian niri hainbeste gustatzen zitzaidan irribarre gozo hura zuen. Ez dut irribarre hura inoiz ahaztuko.

Gaur egun ere, hilerrira joaten naiz amama bisitatzera eta liburu bat bukatzen dudun bakoitzean, bukaeran bost hitz hauek idazten ditut: Zu beti nire bihotzean, amama.

Malen Egaña

BERRIKETAN GAZTEA

2012ko otsaila
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerlean Sortua.

HEZKUNTZA AFEKTIBO SEXUALA



Urtarilean hezkuntza afektibo sexualaren inguruko klaseak izan genituen. Hirusta taldekoak etorri zitzaizkigun azalpenak ematera. Alde batetik, 3. DBHko ikasleok egunean 2 orduko saioak jaso genituen, astebetez. Eta bestetik, gurasoek hitzaldi bat izan zuten.

Sexologia klaseetan sexuari eta afektibitateari buruz hitz egin genuen eta gai asko landu genituen: masturbazioa, homosexualitatea... Gehien landu genuen gaia masturbazioa izan zen; sexologoak aipatu zigunez, txikiak ginenean parekatuta masturbatzen ginen neskek eta mutilak, baina nagusiak egiten garenean ia mutil guztiak masturbatzen

dira, eta neskek oso gutxi. Liburu bat ere erakutsi ziguten, neskek zenbat modu desberdinetan masturbatu daitezkeen eta nola egin dezaketen adierazten zuena.

Jokoak ere egin genituen, denak sexuarekin edo afektibitatearekin lotuak. Abereen jolasa, Maite zaitut, Botilaren jolasa... Oso gogokoak izan genituen jolas horiek, eta hala lasaiago hitz egin genuen.

Ondorio gisa, denok eman genituen gure iritziak: guk nola ikusten dugun sexualitatea, nola pentsatzen dugun izango dela... Oso ondo bukatu genuen, eta gustura errepikatuko genuke esperientzia!

EGILEAK: ENA ESMORIS, ANE BAROJA ETA SARA ANTON



Urtarrilaren 18an eta 19an, Gehituko ikastaroa izan zuten 3. eta 4. mailakoek. Ikastaroa homosexualitateari buruzkoa izan zen, eta Eunate eta Xabi izan zituzten irakasle. Hemen izan zirela aprobeztatuz, elkarrizketa egin diegu:

“Aniztasuna onartua egon beharko litzateke gizartean”



Zergatik etortzen zarete halako ikastaroak ematera?

Pentsatzen dugulako heterosexualitatea eta homosexualitatea ez daudela parekatuta. Gainera, HIESAri buruz hitz egitea oso interesgarria dela eta azalpenak jasotzea beharrezkoa dela iruditzen zaigulako eskaintzen ditugu ikastaroak. Badaude lantzen ditugun beste gai batzuk ere: homofobia, sufrimendua...

Zer pentsatzen du jendeak homosexualei buruz? Eta ikastaroaren ondoren, jendeak iritziz aldatzen al du?

Gure gizartean denetarik dago. Batzuek onartzen dute eta errespetatzen dute; beste batzuek, ordea, ez dute onartzen eta homosexualen kontra joaten dira. Beraz, gauza asko daude oraindik egiteko. Ikastaroen ondorioz, ikasleei zerbait geratzen zaie beti.

Zuen ustez beharrezkoa da ikastaro hauek

ematea?

Bai, beharrezkoa dela uste dugu guk, homosexualak gizarteratzeko modua delako. Azken finean, homosexualak izan ditzaketen beldurak gainditzen lagun diezaiekegulako, eta euren buruak diren bezala onartzen has daitezkeelako.

Noiz hasi zineten ikastaroak ematen?

Zazpi urte daramatzagu HdH programarekin; hau da, Gehitu elkarteak ikastetxeetan, bigarren mailako hezkuntzako ikasgeletan zuzeneko interbentzioak egiten, aniztasun afektibo sexuala lantzeko helburuarekin.

Beraz, aniztasun afektibo sexuala lantzea duzue helburu. Zergatik?

Gizartean aniztasuna onartua egon beharko litzatekeela uste dugulako. Helburua da denok ulertzea gizartean aniztasuna dagoela, askatasunez hitz egin dezakezulako.

EGILEAK: LEIRE ALBERDI ETA NEREA AGIRREGABINA



INKESTA

INAUTERIAK

Aurtengo inauteriak ere iritsi dira eta, betiko moduan, jakin-minez galdetu eta ondoko erantzun hauek jaso ditugu. Ikus dezakezen bezala, ikasleok oso gogoko dugu mozorrotzea eta ondo pasatzea, baina ez ditugu gehiegi ezagutzen beste herri batzuetako inauteriak.

- 1.- Mozorrotzea gustatzen zaizu? Zergatik?
- 2.- Taldean mozorrotuko zarete? Zelan?
- 3.- Egunero mozorrotuko zarete?
- 4.- Etxean egiten dituzu mozorroak edo erosteko ohitura daukazu?
- 5.- Beste herrietan inauteriak nola bizi diren badakizu?



Telmo Soto:

- 1.- Bai, dibertigarria delako.
- 2.- Agian, baina oraindik ez dugu hitz egin mozorroen inguruan.
- 3.- Bai, egunero.
- 4.- Ez dakit. Agian erosi edo agian nik egingo ditut.
- 5.- Ez, ez dakit.



Nerea Almortza:

- 1.- Bai, gogoko dut. Polita delako.
- 2.- Bai. Edozein mozorro jantziko dugu, baina oraindik ez dugu erabaki.
- 3.- Baietz uste dut.
- 4.- Erosi egiten ditut normalean. Eibarrera joaten naiz dendetara.
- 5.- Ez, ez dakit zer egiten duten.



Julen Maza:

- 1.- Ez! Ez dudalako gogoko.
- 2.- Oraindik ez dakit.
- 3.- Ez dakit zer egingo dugun.
- 4.- Normalean erosi egiten ditut, baina ez dakit non, ni ez naizelako joaten erostera.
- 5.- Ez, ez ditut ezagutzen.



Nora Mandiola:

- 1.- Beno, bai. Ondo pasatzen dugulako.
- 2.- Bai, galletaren mozorroa jantziko dugu.
- 3.- Ez dakit.
- 4.- Geuk egingo ditugu.
- 5.- Ez, ez dakit.



Aritz Torres:

- 1.- Bai, ez dakit zergatik, baina gustatzen zait.
- 2.- Ez dakit.
- 3.- Bai, egunero mozorrotuko naiz.
- 4.- Erostea nahiago dut.
- 5.- Bai.



Maialen Baroja:

- 1.- Bai! Dibertitu egiten garelako.
- 2.- Bai, pailazo mozorrotuko naiz.
- 3.- Ez, egun batean edo bitan bakarrik.
- 4.- Aurten nik egingo ditut.
- 5.- Ez, ez dakit.



Hodei Gomez:

- 1.- Bai, lagunekin ondo pasatzen dudalako.
- 2.- Bakarrik mozorrotuko naiz. Gominolaren mozorroa jantziko dut.
- 3.- Bai, ia egunero.
- 4.- Etxean egingo ditut.
- 5.- Bai, Brasilen neskak mozorro ikusgarriekin ibiltzen dira.



Miriam Deza:

- 1.- Bai, ondo pasatzen dut eta gustuko dut.
- 2.- Bai, mozorrotuko gara, baina ez dakigu zer jantzirekin.
- 3.- Egun bakarrean.
- 4.- Erosi egiten ditut.
- 5.- Ez, ez dakit. Ez ditut beste herrietako inauteriak ezagutzen.




Maria Aizpurua:

- 1.- Bai, oso ondo pasatzen baitugu.
- 2.- Bai. Ez dakigu ziur, baina egunen batean behintzat hippy.
- 3.- Ez. Uste dut ostiral, larunbat eta asteartean mozorrotuko gara.
- 4.- Batzuk egin, eta besteak erosi.
- 5.- Badakit Tolosan festa handia egiten dutela, baina beste ezer ez.

**EGILEAK: AINHOA AZKARATE, ALAITZ ESCUDERO
ETA SARA ANTON**

WEB ORRI BERRITUA



Mendata BHIK web orria berri du. Alde batetik, ikastetxearen funtzionamenduari buruzko informazioa dago; bestetik, hainbat arlotarako blogak ere badaude: Natur Zientzia, Euskara, Gorputz Hezkuntza... Blog horietan, ikasgaiak lantzeko baliabideak azaltzen dira. Horregatik, oso erabilgarriak egingo zaizkie ikasleei.

Horrez gain, web berritan ikasleek egiten dituzten irteerak iragartzen dira eta, irteeretan ateratako argazkiak ere agertzen direnez, entretenigarria ere bada. Anima zaitzte eta erabil ezazue www.mendatabhi.net orria!

DenBora-pasa

LETRA ZOPAK


S B U K E T A S E E Z F A U R
 J X Z M A L D I T A N E R E A
 T K K V M G C B U I L T A G B
 K D A P G C N G T E F D H U F
 X W L T D N R A A G I E Y R E
 D G P P N O W O T C I B S R K
 S H F G A Y I Y R E R U N A N
 Y X T Y J Q F I O T R R W T H
 A I P Z A Z N E K Y A K O A H
 J A M E S B L U N T G L V K P
 K A N U D R A Z I B A P D I J
 V E N D E T T A M G T D A T Q
 Z Q E X P B H J N R E W W T F
 H A B W N Z K D E A B C Q O Q
 Z O C O L L E D O T N A C L E

Iturria: euskal.info

MUSIKA TALDEAK:

BETAGARRI
 BIZARDUNAK
 EGURRATAKITTO
 ELCANTODELLOCO
 JAMESBLUNT
 KENZAZPI
 KORTATU
 MALDITANEREA
 VENDETTA
 ZEESATEK

AURKI EZAZU ZURE IZENA EGIPTOKO IRUDIETAN!



Iturria: euskal.info

LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala

PRENTSA TALERRA 2011-2012



Nerea Agirregabiria
 Leire Alberdi
 Sara Anton
 Ainhoa Azkarate
 Ane Baroja
 Alaitz Escudero
 Ena Esmoris

Koordinatzailea: Kontxi Bengoetxea

Udalak 6.828.408 euroko aurrekontua onartu du 2012rako




Pasa den urtarrilaren 27ko plenoan onartu zituen Debako Udaltzako 2012rako aurrekontu orokorrak, Alternatiba, EAJ, EA eta EB-Aralar koalizioaren babesarekin, eta Itziar Herria Sortzen taldearen abstentzioarekin. Iazko aurrekontuarekin alderatuta, %8 txikiagoa izango da 2012. urterako onartutakoa. Aurrekontu bateratua –udal aurrekontua eta patronatoei dago-kiena–, berriz, 7.202.623 eurokoa izango da.

Diru-sarreretan izandako jaitsiera nagusiei dagokienez, transferentzien murrizketa (fondo forala eta diru-laguntzak) zein enpresetatik jasotako zergak aipatu dizkigute Udaletik.

Udalaren gaur egungo egoera ekonomikoa ezagutarazteko helburuz, plenoa burutu aurretik arlo ezberdinetan banatutako aurkezpen bilerak egin ziren herrian. Hemen alboko koa-droetan ikus daitezke, arloz arlo, 2012rako diru partidak. Xehetasun gehiago nahi izanez gero, www.deba.net webgunera ere jo dezakezue.

2012KO AURREKONTUAK



	2012	%
INGURUMENA ETA TURISMO	147.537	2%
ITZIAR ETA LANDA EREMUA	243.148	4%
EUSKERA ETA HEZKUNTZA	239.782	4%
HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA	245.162	4%
OGASUNA	423.555	6%
KIROLA ETA GAZTEDIA	389.123	6%
GIZARTEGINTZA	525.977	8%
KULTURA ETA JAIK	627.609	9%
OBRA ETA ZERBITZUAK	1.533.826	22%
BARNE ERREGIMENA	2.452.689	36%
GUZTIRA	6.828.408	100%

Autobusen ordutegiak jarriko dituzte eskualdeko markesinetan

Gure eskualdean garraio publikoaren erabilera sustatu asmoz eta gutxiago kutsatzen duen mugikortasunaren aldeko apustua eginez, eskualdeko zortzi udalek eta Debegesak Debabarreneko garraio publikoaren mapa banatu dute; mapa horrek ordutegi eta linea ezberdinen gaineko informazio eguneratua eskaintzen die herritarrei. Ekimena Debabarreneko Mahaiaren proposamenez eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren laguntzarekin jarri dute abian, eta mapan agertzen den informazioa Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak editatu du (mapa www.debegesa.com webgunetik deskarga daiteke). Horrekin batera, eskualdeko markesina nagusietan ere informazio-taulak jarriko dituzte.





SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK



Nº. 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Apartado 3 20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

Jaurlaritzak oraindik ez du onartu Praileaitz babesteko dekretu berria

Harrobia ustiatzen duen Zeleta enpresaren aldeko epaia eman du EAeko Auzitegi Nagusiak, eta horrek eragin du dekretu berriaren inguruko erabakia atzeratzea



Mutriku Natur Taldea

Praileaitzeko aztarnategiaren babes eremua handituko lukeen dekretua onartzeko epea urtarrilaren 31n bukatu zen. Blanca Urgell Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak egun horretan aurkeztu behar zuen dekretua Gobernu Kontseiluan, baina, azkenean, eguneko gai ordenatik kanpo utzi zuten kontua, eta egitasmoa bertan behera gelditu da oraingoz honako arrazoiegatik: Praileaitzeko kobazuloaren ondoan dagoen Sasiolako harrobia Amenabar taldeko Zeleta SL enpresak ustiatzen du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak haren alde eman berri duen epaia aztertu behar da.

Gaur egun indarrean dagoen dekretua 2007. urtean onartu zuten, eta, haren arabera, aztarnategiaren babes eremua 50 metrokoa da -onartze bidean zegoen dekretu berriaren arabera, ordea, babes eremua 50 metrotik 65era handituko omen litzateke-. Kontua da 2007an

Zeletak kalte-ordainak eskatu zituela, kobazuloaren babes dekretuarekin bere ustiapen eskubideei kalte egiten zitzaiela argudiatuta. Eta Auzitegi Nagusiak arrazoa Zeletari eman dio oraingoa. Horren aurrean, helegitea jartzeko aukera dauka Jaurlaritzak, baina epaiaren nondik norakoak aztertu edo argitu bitartean, behintzat, Praileaitz babesteko dekretu berriari dagokion guztia atzeratu egin nahi izan du Jaurlaritzak.

Zenbait hedabidek kaleratutako informazioen arabera, Eusko Jaurlaritzak 50 milioi euro inguru ordaindu beharko litzioke Zeletari.

Blanca Urgellek gidaturiko Kultura Sailak 2010eko ekainean argitaratu zuen 2007ko dekretua berritzeko egitasmoa, EAeko boletin ofizialean. Harrezkero luze joan da prozesua, eta urtarril honetan zehaztu behar omen zen Praileaitz aurrerantzean nola babestu behar den arautuko lukeen idatzia.

Dena den, badirudi, epe laburrean behintzat, ez dela behin betiko erabakirik hartuko arlo horretan.

Aldizkari hau inprentara bidali dugunean, EAeko Auzitegi Nagusiaren epaia eskuratzeko zain jarraitzen dute Praileaitzen aldeko zenbait eragile sozial eta kulturalek. Informazio ofizialik ezin lortuta, hainbat komunikabidek aipatu dute, adibidez, Auzitegiak Zeletari arrazoa emanda, aurreko dekretua bera ere baliogabetuta edo moldatuta geratzeko arriskua egon badagoela. Alegia, epai horrek gaur egungo dekretua bera ere baliogabetuko balu, Praileaitz babesik gabe edo babes txikiagoarekin gera litekeela.

Zuhatza Berriketan aldizkariaren hurrengo alean, martxoan, gai honen jarraipena egiteko asmoa daukagu; informazio osotuagoa ematen edota iritzi ezberdinak biltzen saiatuko gara.

Deba ibaia birsortzen jarraitzeko hitzarmena sinatu dute

Uraren Euskal Agentziak eta Debegek hitzarmena sinatu dute 2012-2013 eperako, 2009an abiatutako "Deba ibaia berreskuratzeko eta balioan jartzeko programa integrala" deritzon proiektuari jarraipena emanez.

Sinatutako akordioak bi proiektu biltzen ditu: batetik, Ego ibaiaren ingurumen-hobekuntza eta birsortze proiektuaren garapenarekin lotutakoa eta, bestetik, Deba eta Ego ibaietan degradatutako ingurune desberdinen hobetze, birsortze eta birnaturalizatzeko jarduerak garatzeko

bideragarritasun azterketa burutzeari dagokiona. Azken proiektu horren baitan, zehazki, Deba ibaia Soraluze, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutriku udalerrietatik pasatzean burutu beharreko ekimenak aztertuko dira, baita Ego ibaia Eibar, Ermua eta Mallabiko herrietatik pasatzean egingo direnak ere. 55.000 euroko aurrekontua du egitasmo horrek.

Hitzarmenaren sinatzaileen esanetan, aipatutako lanei esker, "herritarrek egoera onean dagoen ibai-paisaiatz gozatu ahal izango dute, ingurune hauekiko sen-

tsibilizazioa eta ingurumen-heziketa hobetzen lagunduz".





Debanaturaren 2012ko ekintzak

Otsailaren 2an Hezeguneen Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin bat eginda hasi genituen 2012ko jarduerak. Egun horren inguruan, otsailaren 5ean (igandean), **Casacampo Zain Dezagun** eguna ospatu genuen; bertan landareak landatu, gunea garbitu eta informazioa banatu genituen. Horrekin batera, otsailaren 12ra bitartean bi erakusketa jarri ditugu ikusgai Debako Natur Gelan (Debako Kultur Elkartearen): alde batetik, gure inguruko espezie inbaditzaileen inguruko **"S.O.S. Espezie inbaditzaileen mehatxua, adi!"** eta, bestetik, Deba ibaiari buruzko **"Deba ibaiia bizirik"** izenburuko erakusketa.

Martxoa **Praileaitzi** begirako hilabetea izango da. Guztion ondarea den kobazulo berezi horren inguruan hainbat ekintza jarri nahi dira martxan:

h i t z a l - d i a k , a r k e - o l o g i a e s p e r i m e n - t a l e k o t a i l e - r r a , e r a k u s - k e t a , t x a n g o a r k e o l o g i k o a , i n f o r m a z i o m a h a i a . . . Martxoarekin jarraituz, 4an, **Zuhaitz eguna** ere antolatuta nahi dugu.

Apirilean **"Debabarrenako his-**

toriaz blai!" izeneko irteera gidatuen programa berezi bat egongo da. Apirilaren 1ean, igandean, **Paleolitoko ibilbidea** eta apirilaren 22an, igandean, **Debako burdinolen ibilbidea**. Paleolitoko ibilbidean, Ekainberri bisitatzear gain, inguruko Paleolito garaiko aztarnategiak ezagutuko dira eta Debako burdinolen ibilbidean, berriz, Kilimoi bailaran ibilbide erraz bat egin ondoren Elgoibarko Makina-Erreminta museora egingo da bisita.

Apirilaren 10etik 13ra **Gaztemultiabentura oporraldiak** antolatuko ditugu abenturako jarduerak eta Ingurumen sentsibilizazioa uztartuz. Deban gauzatuko diren oporraldi irekiek 60 euroko kostua izango dute. Piriniotako oporraldia ere egongo da eta taldeentzako deskontuak egongo dira.

Apirilaren 29an, berriz, **Ingurumen boluntariotzako** jarduera gauzatu nahi da Deba ibaiaren erriberan, gure erribera guztion artean berreskuratzeko joan ahal izateko. Badira jadanik urte batzuk herritarren boluntariotzari esker kanpaina hau burutzen dugula eta lan horri bultzada txiki bat edo jarraipen bat eman nahian aurten ere berriro antolatzeko asmoa dugu.

Udaberrira begira, apiriletik ekainera bitartean bi ikastaro jarriko dira martxan. Alde batetik, **autokontsumora-**

ko baratza-ekologikoko hastapen ikastaroa. Bertan klase teoriko eta praktikoak uztartuko dira. Bestetik, **sendabelarren ikastaroa** ere emango da. Bi ikastaro interesgarri hauetan izena emateko azken eguna martxoaren 26a izango da eta 40 euroko kostua izango dute (materialerako hilean 10 euroko kuota batekin batera). Hala ere, informazio gehiago www.debanatura.net web orrian izango duzue.

Udara begira **irteera gidatuak** eta **Gaztemultiabentura udaleku irekiak** antolatuko dira. Bestalde, ekainetik irailera bitarte **Septarioei eta arrasto fosilei** buruzko aldi baterako erakusketa bat jarriko da Debako Natur Gelan (Debako Kultur Elkartearen).

Azkenik, udazkenean, Deban **"Zero zabor"** egitasmoa bultzatu asmoz, **kontsumoaren inguruko tailer bat** antolatuko du Debanaturak. Horrez gain, GAIA izeneko programa berrian, **zientzia, ingurumena eta osasunaren inguruko ikastaro bat** egongo da.

Hau da, oraingoz, gure 2012ko egitaraua. Hala ere, datak hurreratzen doazen heinean izango duzue gure berri. Azalpenen bat nahi duen guztiak guregana jo dezake debanatura@hotmail.com helbidean; bestela, www.debanatura.net web orrian informatu zaitezket. Animatu eta parte hartu!!

Debanatura Elkartearen



septarium

Santa eskean, hotzari aurre eginez

Usadio zaharrari jarraituz, Debako eta Itziarko lagun talde ugari aritu zen Santa Ageda bezperan herriko bazterrak kantuz alaitzen. Luzaro eskolako ikasleak, Debako Musika Eskolako kideak, Itziarko Andutz Kultur Taldekoak, presoen aldeko urteroko koardila eta beste hainbat lagun ere animatu ziren makilak eskuetan hartu eta herriko auzo eta inguruetan, kalez kale nahiz baserriez baserri, eztarriz sano dabiltzala erakusten... Hotzak eta elurrak ez zituen kikildu koplariak! Santa eskean irten zirenen irudi batzuk jaso nahi izan ditugu aldizkarian.



Irudiak: Ander Salegi



**TELEFONO
INTERESGARRIAK**

OSASUNA

Anbulategia	943 19 24 24
Itziarko ambulategia	943 19 90 42

ADMINISTRAZIO BULEGOAK

Debako Udala www.deba.net

Debako bulegoak	943 19 28 40
Itziarko bulegoak	943 19 90 48
Bake epaitegia	943 19 23 53
Turismo bulegoa	943 19 24 52
Udaltzaingoa	943 60 80 40

IKASKUNTZA - IRAKASKUNTZA

Arte Eskola	943 19 18 04
Debabe Udal Euskaltegia	943 19 22 36
Haur eskola	943 19 20 81
Helduen Heziketa Iraunkorra/EPA	943 19 29 28
Luzaro ikastetxea:.....	943 19 12 02
Iifar Kalea	943 19 10 46
Galtzada kalea	943 19 91 40
Mendata ikastetxea	943 19 11 18
Musika eskola	943 19 20 16

GIZARTE ONGIZATEA


Eguneko zentroa	943 19 29 33
-----------------------	--------------

ZERBITZUAK

Gaztelekua	943 19 27 62
Ostolaza Udal Liburutegia	943 19 25 60
Informatika gela	943 19 21 76
KZgunea	943 02 94 40
Kiroldegia	943 19 22 62
Taxi geltokia	943 19 14 86
Tren geltokia	943 19 10 37

BESTE BATZUK

Parrokia	943 19 14 97
Itziarko Santutegia	943 19 93 04
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
Debanatura	695 783 656
Ur zerbitzuak	943 60 80 02
Kultur Elkarteak	943 19 11 72



Agenda

-Otsailak 18, larunbata

*19:00. **Lantzeko inauteriak.** Partaideak: Gure Kai Dantza Taldea, Debako Musika Banda, Kalez Kale txistulari taldea eta GOAZ antzerki taldea.

*19:00. **Inauteriak Debako Gaztetxean.** Poteoa Musika Bandarekin; 22:00etan, DJ IVA eta mozerro lehiaketa; 00:30ean, kalejira irtengo da Gaztetxetik, Daltonikoak txar-rangarekin.

Otsailak 19, igandea

-8:30. Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxeak antolatutako mendi irteera: Urkiola-Urkiolagirre-Besaide-Udala.

Otsailak 21, asteartea

-17:00. Inauterien harira antolatutako Txokolatada. Ondoren, disko festa izango da Aldats pilotalekuan, Gaztelekuak antolatuta.

Martxoak 8, osteguna

-Emakumearen Nazioarteko Eguna.

Esperientzia turistiko berria, Lasturren

- "Artzai Txikiak" izenburupean, Debegesak antolatutako esperientzia turistiko berria abiatuko da Lasturren, otsailaren 25ean. Bisitariak euskal baserriaren munduan murgildu nahi ditu ekimenak, lehengo ofizioak gogora ekarriz, eta familia osoak parte hartu dezake. Informazioa: Debako Turismo Bulegoan edo www.debabarrenaturismo.com-en.

Erakusketak Turismo Bulegoan

-**Eibarko Klub Deportiboko argazki taldearen erakusketa.** Otsailaren 17tik 26ra bitartean.
 -**Kubari buruzko erakusketa.** Martxoaren 1etik 11a bitarte.
 -**Apolinarren oleoak.** Martxoaren 15etik 25a bitartean.
 ***Turismo Bulegoko ordu-tegia:** Astelehenetik ostegunera: 10:00-14:00; ostiral eta larunbatetan: 10:00-14:00/17:00-19:30; igande eta jaiegunetan: 10:00-14:00.

DEBAKO BOTIKAK

**ZALDUEGI: TEL. 669 262 201
BURGOA ZUAZO: TEL. 667 338 890**



**22:00etatik 09:00etara, Elgoibarren botika bat guardian.
09:00etatik 22:00etara, Debako botikak itxita dauden bitartean, aste osoan zehar, guardiako farmazia bat Deban edo Mutrikun.**

**Larunbat goizetan beti bat irekita:
9:30 - 13:30**

OHARRA:

Gabeko farmazia zerbitzua Elgoibarrera
Deba, Mendaro, Mutriku eta Soraluzeko zaintzako farmazia Elgoibarren zentralizatuko da aurten. Gipuzkoako Botiken Eskola Ofizialak hala eskatuta eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak aginduta egin da aldaketa. Horrela, gaueko 22:00etatik goizeko 9:00etara farmaziara jo behar dutenek Elgoibarrera joan beharko dute.



ABEL

Kristaldegia

**Mota guztietako kristalak
Lan kristalarasak**

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)

Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net

**JAR EZAZU ZURE
PUBLIZITATEA
ALDIZKARIAN!**

berriketan@zuhatza.com




**Tlf. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik**



ZURE

ENTZUMENA

ZAINTZEN



OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

MULTIÓPTICAS
Uzuri

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.
JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

HONDARTZA, 2 - BEHEA
20820 DEBA (GIPUZKOA)

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482
ase.deba@teleline.es

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

oskarbi

Menua
Ogitartekoak
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9
Tel. 943 029 488 - 618 644 014
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

MAZZANTINI
TABERNA

Sokagin, 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel. 943 192 422

BOKATAK - PINTXOAK
ETA GIRO ONA

Informatika
Tresneria
informatikoa

IL

Elektronika
Osagai
elektronikoak

Maxpe kalea, 7 - Behea
20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

e-mail: jlc@informatikajelektronika.e.telefonica.net

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 bajo • Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrak: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

**ZUHATZA BERRIKETAN
HERI ALDIZKARIA DA!!
ZURE TARTEA IZAN NAHI DUZU?**

**BIDALI
ZURE
ARGAZKIAK
EDO
IDATZI
NAHI
DUZUNARI
BURUZ**

BERRIKETAN@ZUHATZA.COM